



→ **DISTANTZIA:** 8,5 KM

🕒 **AURREIKUSITAKO DENBORA:** 3 H 25 MIN

⬆️ **DESNIBELA:** 534 M

GR® 321

3. BIDE-ADARRA


IZABA-UZTARROZE

HASIERA:
▶️ IZABA



OHARRA:

- Uztarrozetik igotzean, baliteke ibilbidearen zati batzuk ondo definitu gabe egotea, zuhaitz-mozketen ondorioz. Arreta handia jarri behar zaie GR-markei.
- Uztarroze eta Izaba artean, ibilbidea ez da iturrietatik edo jendea bizi den lekuetatik pasatzen. Eraman nahikoa ur eta janari, eta kalkulatu indarrak.



Bide hau Errege-Bidearen adar bat da, Izabatik Uztarroze ederrera doana pagadi eta pinudi sarriak zeharkatuz eta mendiaren gainaldetik igaroz. Izabako zubitik abiatuz, bidea berehala aldentzen da GR® 11tik, eta pagadi eder batetik igotzen da Saitsederra inguruan berriz ere harekin elkartu arte. Ibilbidearen punturik garaienean, atzealdean Ori mendia dela, paisaia ikusgarria da. Han GR® 11 berriz utzi behar da iparralderantz joateko, eta bidexkak eta baso-bideak tartekatuz jaisten da Uztarrozeraino.